



15 USATEGIETA

Sagardo dolareen inbentarioa

ERAIKINAREN DATUAK

Izena eta aldaerak: Usategieta.

Auzoa, udalerrria: Galtzaur., Astigarraga.

Dolarearen kokapena: Baserriaren lehen solairuan toleara eta behe solairuan upelategia.

Jabea: Uriarte - Altuna.

DOLAREAREN DATU HISTORIKOAK

Kronologia: XX. mendekoa.

Iraunaldia: Duela 30 bat urte arte sagardoa bertan egin dute.

Zenbait datu:

Egungo erabilera: Trastelekua, biltegia.

Kontserbazio egoera: Ona.

TIPOLOGIA ETA EZAUGARRI NAGUSIAK

Dolare-prentsa:

Hormigoizko askaren erdian zutik hartutako ardatza du, goiko erdia hariztatua duela. Zati horretan muntatua du ardatzean gora eta behera mugitzen den burua, palanka bidez eskuz eraginda estutzen den mekanismoaz eta zurezko urkaren ordeztuzko altzairuzko perfil zatiaz osatua. Behe solairuaren sabaian aska eusten duen hormigoizko gurutzeta ikus daiteke, erdian ardatzaren torlojua duela.

Dolarearen osagarriak:

- Motordun matxaka goiko solairutik sagarrak tolbara bideratzeko zurezko hodiarekin.
- Txorrotak, giltza edo trumukuak eta patsolak.
- Sagardo botilak garraiatzeko burdinazko hari lodiz egindako kaxak.
- Sagar biltzerako zare eta kizkiak.

Argazkiak: 15.01, 15.02, 15.03.

GAKO-HITZAK

Eskuzko trakzioa, matxaka, Astigarraga.

OHARRAK

Gaur egun bertan bizi ez arren, informatzailea Usategietan maizterra da, aspalditik.

GALDETEGIA

Informatzailea: Joxe Mari Merkader.

Datu bilketaren egilea: A.Agirresarobe, J.Tellabide.

Datu bilketa data: 2010eko martxoaren 16a